



.....
EKINTZAIETZA DIGITALEKO PROIEKTUEN SEHASKA AURRERATUA

Irazabal-Matiko” Bilbao Auzo Factory zentroan
“KBi DIGITAL BILBAO BIZKAIA” ekintzaietza
digitaleko sehaska aurreratuan sartzeko oinarri
arautzailea



Aurkibidea

1. Zioen azalpena.....	2
2. KBi DIGITAL ekintzailtza digitaleko proiektuen sehaskaren izaera	4
3. Xedea.....	6
4. Onurak	7
5. Onuradunak eta betekizunak.....	8
6. Sartzeko eskubidea emateko prozedura	11
7. Dokumentazioa	13
8. Lagapen-hitzarmena	15
9. Erantzukizun zibileko aseguruua	16
10. Egonaldi-erregimena	16
11. Kudeaketa eta administrazioa	19
12. Onuradunen betebeharrak orokorrak	19
13. Programaren iraunaldia eta garapena	21
14. Datu pertsonalen babesa	21
15. Lekarpena	22
16. KBi DIGITALAREN logotipoaren publizitatea	22
17. Aplikatu beharreko araudia.....	23
I. Eranskina.- Lagapen-hartzaileek ordaindu beharreko kuotak	24
II. Eranskina.- Profesionalen profilak.....	25

1. Zioen azalpena

Bilbao Ekintza, EPEL udal erakundeak, hiriaren sustapen ekonomikoaz arduratzen denak, udalerrian enplegua eta aberastasuna sor ditzaketen enpresen erakarpena, sorrera eta hazkundera sustatzeko helburua du, besteak beste. Bilbao Ekintza, EPELeke uste du ekimen eta enpresa-proiektu berriek nabarmen laguntzen dutela enplegua sortzen, baita kalitateko enpresak sortzen ere, batez ere, gure udalerrirako interes estrategikoa duten sektoreetan.

Eremu horren inguruan, Bilbao Ekintzak **Bilbao Auzo Factory** proiektua abiarazi du, hiriko zentroen sarea dena eta herritarren, auzoaren, enpresen eta hiriaren arteko elkargunea izateko helburua duena. Zentro horiek erreferentziazko espazioa izan nahi dute, herritarrentzat eta enpresetarako zabalik dagoena, berritzailea eta hiriko garapen ekonomikoaren dinamizatzailea dena, metodologia berriak, espazio berritzaileak eta zerbitzu aurreratuak dituen eta Bilbo hirirako estrategikoak diren sektoreetan arreta jartzen duena.

Eremu estrategiko horietako bat industria sortzaileen barneko ekonomia digitalekoa da; izan ere, gure Lurraldean dauden Administrazioek sektore horren aldeko apustua egiten dute, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak **Bilbao Bizkaia Design & Creativity Council** izenekoaren bidez sinatutako akordioan adierazi bezala. Eta, horregatik, bi Administrazioak elkarrekin lan egiten ari dira, sektore horien trakzio-proiektuak, hiriko eta Lurraldeko garapen ekonomikoari eta nazioarteko proiektuari laguntzen dietenak, abiarazteko.

Bi erakundeek jakin badakite esperientzia erkatuak egiaztatu duela sektore horretako sehaska aurreratuak eta espezializatuak abiarazteak eduki digitalen sektorearen trakzio jardun duela, horiek eratu diren hirietan eta lurraldeetan. Horregatik, sakelako telefono, telebista eta euskarri anitzerako aplikazioak, Interneten oinarritutako negozioak, bideojokoak eta eduki digitalen ekoizpena, besteak beste, garatzeko espezializatuta

dagoen sehaska bat sortu eta abiarazteak jarduera ekonomikoa eta enplegua sor ditzake.

Faktore horiek bateratzearen ondorioz eta Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean Bilbao Ekintza, EPEL eta Beaz SAU enpresa publikoen bidez sinatutako hitzarmenaren bidez bultzatuta, **KBi DIGITAL BILBAO BIZKAIA** ekintzailtza digitaleko proiektuen sehaska aurreratua (hemendik aurrera, KBi DIGITAL) sortu da. Haren helburu nagusia enpresa sortu berrien zein aurretik eraturako enpresen ekintzailtza-proiektuak sustatzea da, ekonomia digitalaren sektorean. KBi DIGITALEk erreferentziatzko zentroa izan nahi du eremu digitalean ekimenak berritzeko eta garatzeko, startup eta aplikazio berriak sortzeko, IKT sektoreko enpresak garatzeko... Laburbilduta, Bilboko eta Bizkaiko lurraldean ingurune digitalei aplikatutako berrikuntza eta sormen zentroa izan nahi du.

Bilboko Udalak espazio ezin hobea dauka mota horretako sehaska bat kokatzeko: Matiko kaleko 6 zenbakiko Irazabal eraikina, hain zuzen, bertan Udalak “Auzo Factory” bat sortu duela eta lehenengo eta bosgarren solairuen artekoak sehaska horretarako erabil daitezkeela.

Proiektu horrek Europar Batasunaren fondoetatik datozen laguntzak izan ahalko ditu, eta, kasu horretan, horiek ezartzen duten araudia aplikatuko zaio.

Azaldutakoa oinarri hartuta, Bilbao Ekintza, EPELekeko Administrazio Kontseiluak, 2014ko martxoaren 31ko bileran, Bilbao Ekintzak kudeatzen duen eta “Irazabal-Matiko” Auzo Factory Udal Zentroan dagoen “KBi DIGITAL BILBAO BIZKAIA” ekintzailtza digitaleko sehaska aurreratuan sartzea arautzen duen araudia onetsi du 2014rako.

2. KBi DIGITAL ekintzaletza digitaleko proiektuen sehaskaren izaera

KBi DIGITALEk erreferentziazko zentroa izan nahi du eremu digitalean ekimenak berritzeko eta garatzeko, startup eta aplikazio berriak sortzeko, IKT sektoreko enpresak garatzeko... Laburbilduta, Bilboko eta Bizkaiko lurraldean ingurune digitalei aplikatutako berrikuntza eta sormen zentroa abiarazi nahi da, beste erakunde laguntzaile eta babesle batzuen partaidetzarako ere zabalik dagoena.

KBi DIGITALEk negozio digitalen ekintzailetzarako nazioarteko erreferentzia bihurtu nahi du.

Oinarri hauetan aipatutako neurrien helburu nagusia udal eta foru estrategiaren barnean lehentasunezkoztat jo diren sektoreetako batean jarduera ekonomiko bat garatzen laguntzea da, "KBi DIGITAL BILBAO BIZKAIA " (hemendik aurrera, KBi DIGITAL) izeneko ekintzailetza digitaleko sehaska aurreratua modu elkartuan abiaraziz. Helburu nagusi horrek enpresa sortu berrien zein aurretik eratutako enpresen ekintzailetza-proiektuak sustatzea dakar, ekonomia digitalaren sektorean.

2.1 KBi DIGITALen ezaugarriak:

KBi DIGITAL sehaskaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

1.- Espezializatua: KBi DIGITAL eduki digitalen sektorean merkatu orokorretara bideratutako produktu eta zerbitzu berritzaileetara bideratuko da.

2.- Bertikala: KBi DIGITALEk proiektuak azkartzeari eragin diezaioketen jarduera guztiak garatuko ditu: mentoring-a, prestakuntza, inbertsiogileekin egindako jardunaldiak, merkaturatzea, hedapena, networkinga, gaikako jardunaldiak, erosketa

publiko berritzaileko proiektuak, aurretik dauden enpresen berrikuntza-proiektuak eta abar.

3.- Bikaina. Ezaugarri hori funtsezko bi eremutan islatzen da:

- Sehaskaren inputa: KBi DIGITALEkin harremanetan daudenek edo bertan beren jarduera garatzen dutenek (ekintzaileak, startupak, eraturako enpresak, profesional inbertsiogileak eta abar) “talentua” eta “jarrera” izan behar dituzte.
- Outputean helburua KBltik irteten diren startupak eta profesionalak bikainak izatea da, baita hirugarrenentzat egiten dituzten produktuak eta zerbitzuak ere.

2.2 KBi DIGITALEko erabiltzaileak:

KBi DIGITALen sakelako telefono, telebista eta euskarri anitzerako aplikazioak, Interneten oinarritutako negozioak, bideojokoak eta eduki digitalen ekoizpena, besteak beste, garatzeari batez ere lotutako proiektuak eta jarduerak garatuko dira. Zentro horrek erabiltzaileen honako profil hauek hartuko ditu:

- Ekintzaileak, enpresak eta startupak, eremu horiei lotutako proiektuak dituztenak, haien produktuak eta zerbitzuak berritzaileak direla, merkatu orokor batera bideratzen direla eta arlo horietako baten batean edo antzeko beste batzuetan garatzen direla.
- Oinarrietan zehaztutako profiletako baten bat betetzen duten profesionalak.
- Bertan kokatutako proiektuak garatzen eta azkartzen laguntzen duten eta/edo sehaskaren eginkizunak betetzeko lan egiten duten erakundeak eta enpresak.

2.3 KBi DIGITALen kudeaketa:

KBi DIGITALen kudeaketa **Kudeaketa Batzorde** bati egokituko zaio, Bilbao Ekintzako eta Beazeko ordezkarien kopuru berdinek osatuko dutena. Batzorde horrek sei kide, gutxienez, izango ditu, eta aldi berean adituen partaidetza izan ahalko du, horrek hori erabakitzen duen guztietan.

2.4 KBi DIGITAL ekintzailtza digitaleko proiektuen sehaskaren kokapena

KBi DIGITAL sehaskak “Irazabal-Matiko” Bilbao Auzo Factory zentroko lehenengo eta bosgarren solairuen artekoak erabiliko ditu bere jarduerak garatzeko.

3. Xedea

Oinarri hauen xedea “Irazabal- Matiko” Bilbao Auzo Factory zentroko “KBi DIGITAL BILBAO BIZKAIA” ekintzailtza digitaleko sehaska aurreratura sartzeari arautzea da.

Oinarri hauetan jasotako neurrien helburua Bilbon kokatu nahi duten enpresa-proiektuen eta startupen sustatzaileei, enpresei eta profesionaleri laguntzea da, euren enpresa-jarduera eta/edo handitzeko gaitasuna duten proiektu berritzaile berriak eduki digitalen sektorearen esparruan gara ditzaten. Horretarako, Enpresentzako Udal Eremu hau eskaini zaie euren proiektuak kokapen eta ingurune egokian gara ditzaten, ingurune lehiakorrean bizirik irauteko behar adinako trebetasun eta ezagutzekin merkatura irteteko aukera emango dien heldutasun-maila lortu arte.

4. Onurak

4.1 Instalazioetara sartzea:

- KBi DIGITAL sehaskan lan-espazio bat okupatzea, lagapen-erregimenean. (Erabiltzaileek mahaia, aulkia eta konektagarritasuna izango dituzte lanpostu bakoitzeko, baita eraikineko espazio komunetarako sarbidea ere)
- Espazioetarako lehentasunezko sarbidea, enpresa-proiektuei lotuta dauden eta zentroan antolatzen diren dinamika, erakusketa, foro eta bestelako dinamizazio-jardueretarako.

4.2 Zerbitzuetarako sarbidea:

- Proiektuaren tutorizazio-zerbitzua eskuratzea, bai Bilbao Ekintzak bai Beazek erabiltzaileen eskura jartzen dituzten enpresak sortzeko eta modu lehiakorrean hobetzeko laguntza programak eta zerbitzuak eskuratzea barne.
- Zentroan antolatzen diren, irekiak diren eta, doakoak izan gabe, % 20ko deskontua ematen duten dinamizazio-jardueretan parte hartzea lehentasunez eskuratzea.
- KBi DIGITALen azkartze-zerbitzuak (mentoring-a, merkaturatzea, harremanen eta inbertsio-txanden antolaketa, prestakuntza, finantza-erakundeekin baldintza onuragarriak eskuratzea, aseguruak, komunikazioak...) eskuratzeko aukera, zerbitzu hori arautu bezala.
- Enpresek beren helbide soziala kokatu ahalko dute KBi DIGITALen.

4.3 Egonaldiaren iraupena

- KBi DIGITALeko egonaldiaren gutxienerako aldia 6 hilabetekoa izango da.
- Proiektuen sustatzaileen kasuan, hasierako iraupena 6 hilabetekoa izango da, eta gehienez 12 hilabetera luzatu ahalko da.
- Startupen (azken 4 urteetan sortutako enpresak) kasuan, kontratuaren gutxienerako iraupena urtebetekoa izango da; gehienekoa, berriz, 4 urtekoa.
- Aurretik eratu diren eta garatzeko proiektu berritzaile bat aurkezten duten enpresen kasuan, kontratuaren gutxienerako iraupena urtebetekoa izango da; gehienekoa, berriz, 3 urtekoa.
- Profesionalen kasuan, kontratuaren gutxienerako iraupena 6 hilabetekoa izango da; gehienekoa, berriz, 4 urtekoa.

Kasu guztietan KBi DIGITAL sehaskako Kudeaketa Batzordeak zentroan kokatutako proiektu guztien urteko balorazioa egingo du, bertan jarraitzeari buruzko iritzia baloratu eta onesteko. Kudeaketa Batzordearen urteko balorazioa negatiboa bada, lagapen-hitzarmena deuseztatuko da.

Salbuespen gisa, Kudeaketa Batzordeak eskatu eta Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak onetsi eta gero, egonaldiaren iraupenari buruzko baldintzak aldatu ahalko dira, zentroan kokatutako proiektuen garapenaren arabera.

5. Onuradunak eta betekizunak

5.1 Onuradunak:

- Enpresa berri bat sortzeko proiektua aurkezten duten ekintzaileak.

- Startupak, hau da, lau urtetik beherako antzintasuna izanda eratutako enpresak.
- Aurretik eratutako enpresak, garapen-proiektu berritzailea eta handitzeko gaitasuna dituztenak, 4 eta 10 urteren bitarteko antzintasuna dutenak, gehienez 10 langile dituztenak eta milioi bat eurotik gorako fakturazioa ez dutenak.

Horiek guztiak berritzaileak diren, merkatu orokor batera bideratzen diren eta arlo horietako baten batean edo antzeko beste batzuetan garatzen diren produktuen eta zerbitzuen eskaintza izan edo horretara bideratuta egon behar dira.

- Pantaila askotako ikus-entzunezko proiektuak
- Plataforma anitzeko edukien eta formatuen garapenak
- Aplikazio digitalen garapena.
- Bideojokoak
- IOT Interneteko teknologiak
- Merkataritza elektronikoko proiektuak
- Sakelako gailuetarako programen, kanalen eta edukien garapena
- Garapen digitalak B2C, B2B, B2A inguruneetan
- Ekimenen *social mediako* garapena
- Advergaming, gaming edo gambling-aren garapenak edozein pantailatan
- Aurreko arloei lotutako zerbitzu aurreratuak

Gainera, KBi DIGITALEko erabiltzaileak izan ahalko dira II. eranskinean deskribatutako profilak betetzen dituzten profesionalak.

5.2 Sehaskan sartzeko betekizunak:

a) Enpresa gisa eratu aurreko enpresa-proiektuak:

1. Ekintzaileek negozio-planean aurrerapen adierazgarriak egitea Bilbao Ekintzako edo Beazeko Enpresa Sustapeneko Sailean, Bilbao Ekintzako eta Beazeko teknikariek proiektu hori bideragarritzat jo dutela.

2. Administrazio Publiko ororekiko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekin dauzkatena ere. Bilboko Udalarekin duten zerga-egoera Bilbao Ekintza, EPELek egiaztatuko du ofizioz.

b) Aurretik eratutako enpresak eta profesionalak:

1. Sozietateak eratuta eta erregistratuta egotea, eta ondasun-erkidegoak eratuta egotea eta identifikazio fiskaleko zenbakia izatea.

2. JEZe an alta emanda egotea eta helbide fiskala Bizkaian izatea.

3. Administrazio Publiko ororekiko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekin dauzkatena ere. Bilboko Udalarekin duten zerga-egoera Bilbao Ekintza, EPELek egiaztatuko du ofizioz.

4. Berritzailea den eta handitzeko gaitasuna eta, enpresen kasuan, merkatu orokorretan sartzeko gaitasuna dituen proiektua izan eta aurkeztea. Profesionalen kasuan, balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzea zentroan kokatutako enpresei.

5. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileek espazioaren lagapenaren eskaerari lotutako enpresa-jarduera gauzatu ahalko dute beste eraikin batean, eta higieztina eskatu ahalko dute negozio-linea berri bat abiarazteagatik edo udalerrian handitzeko gaitasuna duen proiektu berritzailea garatzeagatik.

6. Halaber, horretatik kanpo egongo dira erakunde eta sozietate publikoak eta/edo administrazioen mendeko erakundeak.

1083/2006 Erregelamenduak (EB) I. tituluko IV. kapituluan jasotakoari jarraituz, KBi DIGITALEk enpresentzat eta enpresak sortzeko proiektuentzat dituen laguntza-tresnen bidez, sentsibilizatu egingo da garapen iraunkorarekin eta ingurumenaren babesa eta hobekuntza sustatzearekin lotutako jardunbide egokiei buruz, baita bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa enpresen barruan bateratzearekin lotutako ekintzei buruz ere. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zainduko da, baita sexuan, arrazan, sorburu etnikoan, erlijioan edo sinesmenetan, elbarritasunean, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminaziorik eza ere.

6. Sartzeko eskubidea emateko prozedura

6.1 Hautaketa-prozesua

Zentroko espazioak eta zerbitzuak eskuratzeko prozedura deialdi irekian egingo da, oinarri hauen indarraldian.

Interesdunek eskaera Bilbao Ekintzara bidali beharko dute, haien eskura jarritako inprimakiaren bidez.

Interesdunei informazio osagarria eskatu ahalko zaie, eta elkarrizketa egin ahalko da, proiektua hobeto ulertzeko.

Eskaerak KBi DIGITALEko Kudeaketa Batzordeak aztertuko ditu, balorazioa egingo du hautaketa-irizpideak oinarri hartuta, eta erabakia kide guztien aho batez hartuko du.

Kudeaketa Batzordeak adituen aholkularitza izan ahalko du, aurkeztutako proiektuak hori eskatzen badu.

6.2 Hautaketa-irizpideak

Zentroan sartzeko beharrezkoa izango da aldeko balorazioa izatea honako irizpide hauetako bakoitzean:

Sustatzaileak eta startupak:

- Eskainitako produktuen eta zerbitzuen izaera berritzailea.
- Produktu eta zerbitzu horien xede den merkatu orokorraren indarra.
- Proiektuek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko duten gaitasuna.
- Talde sustatzailearen finkotasuna eta gaitasuna.
- Negozio-plana.
- KBi DIGITALen aurretik ezarritako proiektuekin lankidetzak sortzeko gaitasuna.

Aurretik eratutako enpresak:

- Handitzeko gaitasuna
- Negozio-plana eta/edo garapen-proiektua, berritzailea dena, eta handitzeko gaitasuna eta merkatu orokorretan sartzeko gaitasuna dituen.
- Eskainitako produktu eta zerbitzuen merkatura sartzeko gaitasuna.
- Talde sustatzailea.
- KBi DIGITALen aurretik ezarritako proiektuekin lankidetzak sortzeko gaitasuna.

Profesionalak:

- Eranskinean zehaztutako arloetako jakintza-maila.
- Esperientzia.
- KBi DIGITALen aurretik ezarritako proiektuekin lankidetzak sortzeko gaitasuna.
- KBi DIGITALen kokatutako gainerako profesionalekin komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.

- Izaera ekintzailea.

6.3 Eskaeren balorazioa

KBi DIGITAL sehaska kudeatzen duten teknikariek eskaerak bideratuko dituzte, eta zentroan sartzeko hautaketa Kudeaketa Batzordeko kideen aho batez onetsiko da. Izan ere, Kudeaketa Batzordeak horiek baloratu, eta zentroko egonaldiaren iraupena ezarriko du. Eskaerak Bilbao Ekintzako Zuzendaritzak beren-beregi eta banan-banan egindako jakinarazpenaren bidez ebatziko dira.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta dagokion lagapen-hitzarmena sinatzeko epea adieraziko zaie.

Eskaerak sarrera-ordenari jarraiki ebatziko dira, zentroan plaza libreak dauden neurrian.

7. Dokumentazioa

a) Eskatzailea enpresa edo profesionala bada:

- Sartzeko eskaera
- Berritzailea den eta handitzeko gaitasuna eta, enpresen kasuan, merkatu orokorretan sartzeko gaitasuna dituen garapen-proiektua. Profesionalen kasuan, jakintza- eta esperientzia-mailen egiaztapenak.
- Bilbao Ekintzaren banku-datuen fitxa, edo erakunde finantzarioak luzatutako egiaztagiri baliokidea.
- Enpresako bazkideen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- Ondasun-erkidago edo sozietateen kasuan, pertsona eskatzaileak duen ordezkartza-ahalmena egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.

- Merkataritza-sozietateen kasuan eratzeko eskrituren kopia; eta, sozietate zibilen edo ondasun-erkidegoen kasuan, eratzeko akordioa. Merkataritza-sozietateen kasuan, Merkataritza Erregistroaren eginbidea izan beharko dute eskriturek.
 - Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
 - Enpresako langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako dagokion Erregimeneko edo dagokion Lanbide Mutualitateko altako partearen kopia.
 - Administrazio Publiko ororekin dauzkaten zerga-betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekin dauzkatenak ere, egunean dauzkatela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak. Bilboko Udalarekin duten zerga-egoera Bilbao Ekintza, EPELek egiaztatuko du ofizioz.
- b) Eskatzailea ekintzailea bada, baina haren enpresa oraindik eratu ez bada:
- Sartzeko eskaera
 - Enpresako bazkideen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
 - Bilbao Ekintzako, Beazeko edo beste erakunde bateko Enpresa Sustapeneko Sailean egindako negozio-plan bideragarria.
 - Bilbao Ekintzaren banku-datuen fitxa, edo erakunde finantzarioak luzatutako egiaztigiri baliokidea.
 - Proiektu eskatzailea Bizkaian instalatzeko konpromisoa, emandako ereduaren bidez adierazitakoa.
 - Administrazio Publiko ororekin dauzkaten zerga-betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekin dauzkatenak ere, egunean dauzkatela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak. Bilboko Udalarekin duten zerga-egoera Bilbao Ekintza, EPELek egiaztatuko du ofizioz.

Oharra

Eskabide-inprimakia oinarri hauek onartu zirenetik dago eskatzaileen eskura Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapeneko Sailean (helbidea: K/ Nafarroa 5, 3. solairua), baita Erakundearen webgunean ere: www.bilbao.net/bilbaoekintza.

Eskaerak, behar bezala beteta eta atal honetan aipatzen den nahitaezko dokumentazioarekin batera, Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapeneko Sailean aurkeztu beharko dira.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

Proiektuek eratzeko baldintzak bete, eta eskatutako espaziora sartu baino lehen enpresei eskatu zaien derrigorrezko dokumentazio osoa aurkeztu beharko dute.

Eskaerak jasotakoan, guztiz beteta ez badaude edo horiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezten ez bada, 10 egun balioduneko epean gabezia zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak aurkezteko eskatuko zaie eskatzaileei, eta adieraziko zaie hori egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko dela eta Bilbao Ekintzak eskaeraren gaineko berariazko ebazpenik xedatu beharrik ez duela.

Kasu guztietan, aurkeztutako eskaera ondo ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die Bilbao Ekintzak oinarri hauetan jasotako onuren eskatzaileei.

8. Lagapen-hitzarmena

Espazioa okupatu aurretik eta derrigorrezko dokumentazioa (Erantzukizun Zibileko Asegurua kontratatzea barne) entregatu ondoren, Bilbao Ekintzak lagapen-hartzaile bakoitzarekin sinatuko du espazio hori erabiltzeko lagapenaren baldintza arautzaile orokorrak eta partikularrak zehaztuko dituen hitzarmena.

9. Erantzukizun zibileko aseguria

Espazioa okupatu aurretik, Erantzukizun Zibileko Aseguria kontratatu beharko dute lagapen-hartzaileek, jardueran aritzeak, instalatutako mekanismoen funtzionamenduak eta abarrek okupatutako espazioari, instalazio eta elementu komunei, hirugarrenei eta beste onuradun batzuei sor diezazkieketen kalte pertsonal eta materialak estaltzeko. Horrez gain, kontratatutako aseguruaren polizaren kopia bat entregatu, eta hitzarmenaren indarraldian urteko primak ordaindu izana dokumentu bidez justifikatu beharko dute.

10. Egonaldi-erregimena

A) KBi DIGITAL sehaskaren enpresa-espazioen erabilerari buruzko arau orokorrak

1. Espazio horiek erabiltzeko, oinarri hauen 8. puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.
2. Espazioa erabiltzeko eskubidea pertsonala eta transferiezina da, eta ezingo da errentan eman edo laga, ez osorik ezta zati bat ere, ez doan eta ez behin-behinekoz ere.
3. Indarreko araudiaren arabera, jarduerari hasiera emateko eta garatzeko behar diren lizentzia eta baimen administratibo guztiak izan beharko dituzte.
4. Lagapena jakinarazten den datatik hilabete igaro baino lehen eman beharko diote hasiera jarduerari lagatako espazioan.
5. Lagapen-hitzarmena espazioaren lagapena jakinarazten denetik hilabete pasatu baino lehen sinatu behar da.
6. Espazioa erabilera eraginkorreko egoeran mantendu behar dute; salbuespen gisa eta Bilbao Ekintzaren proposamen arrazoituaren bitartez, erabilera aldi baterako

bertan behera uztea baimendu daiteke. Behin betiko uzten bazaio espazioa erabiltzeari, entregatutako baldintzetan utzi beharko da.

7. Espazioko egonaldia amaitzen denean, onuradunak bere gauza guztiak erretiratu beharko ditu. Hala egin ezean, Bilbao Ekintzak jaso ahal izango ditu, eta egonaldia amaitu eta 3 hilabete igarotzen direnean suntsitu ahal izango ditu.

B) Elementu komunak eta ordutegia:

•Elementu komunak:

Elementu komuntzat jotzen dira euren izaera kontuan hartuta lagapen-hartzaileen erabilera eta aprobetxamendu komuna izan dezaketenak edo erabilera orokorrekoak direnak.

Lagapen-hartzaileek elementu komunak erabiltzeko eskubidea dute, baina gainerakoei erabiltzea galarazi gabe eta Bilbao Ekintzak xedatutako arauak errespetatuz betiere. Kontu horren inguruan sortzen diren gatazkak Bilbao Ekintzak ebatziko ditu.

•Ordutegia:

KBi DIGITAL sehaska zabalik egongo da egun osoan zentroan lan egiten duten pertsonentzat.

C) Lagapen-hartzaileei eskaini beharreko zerbitzuak:

KBi DIGITAL sehaskaren funtzionamendu zuzena bermatzeko asmoz, Bilbao Ekintza Erakunde Publikoak honako zerbitzu hauek eskainiko dizkie lagapen-hartzaileei:

•Gutxieneko zerbitzu orokorrak:

Izaera hori izango dute lagapen-hartzaile gehienei eragiten dieten eta lagapen-hitzarmenean xehatuko diren zerbitzuek. Nolanahi ere, izaera hori izango dute honako hauek:

- Garbiketa eta mantentze-lanak
- Berokuntza
- Aire girotua
- Elektrizitatea

Lagapen-hartzaile guztiek sartzeko txartelen sorta bat jasoko dute. Txartel gehiago behar izanez gero, lagapen-hartzailea arduratuko da kopia horiek egiteaz. Behin kontratua deseginda, lagapen-hartzaileak dauzkan txartel guztiak entregatu beharko ditu.

•Banakako gutxieneko zerbitzuak:

Izaera hori izango dute lagapen-hartzaile bakoitzak indibidualki erabil ditzakeen zerbitzuek eta bereziki honako hauek: enpresa-espazioetako altzariak.

Arrazoi objektiboek justifikatzen dutenean, lagapen-hartzaileek zerbitzu independenteak jarri ahal izango dituzte euren lanpostuetan, Bilbao Ekintzaren baimena lortu ondoren.

•Bestelako zerbitzuak:

Edozein lagapen-hartzailek eska diezaioke Bilbao Ekintzari beste zerbitzu batzuk emateko eta egokitzapenak egiteko. Bilbao Ekintzak, dagokion azterketa egin ondoren, zerbitzuak ematea edo egokitzapenak egitea erabakiko du. Zerbitzuak ezartzeagatik eta mantentzeagatik lagapen-hartzaileek zenbat ordaindu behar duten ere erabakiko du.

D) Lagapen-hartzaileek ordaindu beharreko kuotak:

Lagapen-hartzaile bakoitzak espazioaren lagapenari dagokion kuota ordaindu behar du. Zenbatekoak (BEZ sartu gabe) dokumentu honen I. eranskinean zehazten dira, eta horien barruan gutxieneko zerbitzu indibidualak zein orokorrak sartzan dira.

Kuota fakturatzeko modua lagapen-hitzarmenean finkatuko da.

11. Kudeaketa eta administrazioa

Bilbao Ekintzak bere gain hartuko ditu kudeaketa eta administrazioa, eta horretarako zeregin hauek beteko ditu:

- Elementu komunen mantentze-lanak, funtzionamendua eta kontserbazioa.
- Lagapen-hartzaileei lehen deskribatutako gutxieneko eta aukerako zerbitzuak ematea.
- Lagapen-hartzaileei fakturatu eta kobratzea.
- Gutxieneko zerbitzu indibidualak mantentzea, baldin eta haien erabilera egokiko araei erreparatuta behar bezala erabiltzen badira.

12. Onuradunen betebeharrak orokorrak

12.1 Onuradunen betebeharrak

- Programa honen xedearen inguruko funtzioak betez eskatutako informazioa ematea.
- Bilbao Ekintzarekin hitzartutako baldintzen aldaketa guztien berri ematea.
- Instalazioak, elementu komunak eta gutxieneko zerbitzu indibidualak modu egokian erabiltzea.
- Espazio bakoitzeko segurtasuna dagokion lagapen-hartzailearen erantzukizuna izango da.
- Eta, oro har, oinarri hauetan adierazten diren guztiak, baita lagapen-hitzarmenean aipatzen diren betebeharrak ere.

12.2 Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea

Lagapen-hartzaileek Laneko Arriskuen Prebentzioko araudi orokorra errespetatu beharko dute, baita Bilbao Ekintzarena berarena ere. Halaber, lagapen-hartzaileek euren gain hartzen dute Bilboko Udal Erakundearen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak bere eskumeneko esparruan egindako gomendioak betetzeko konpromisoa, programa gauzatzean garatzen duen jarduerak xede horietarako garrantzia duela erabakitzen den orotan.

12.3 Tabakismoari aurre egiteko osasun-neurrien Legea

Tabakismoari aurre egiteko osasun-neurrien eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen Legea (28/2005 Legea, abenduaren 26koa) eta droga-mendetasunaren arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketaren otsailaren 3ko 1/2011 Legea betez, ezingo da erre Zentroko instalazioetan, ez oinarri hauen lagapenaren xede diren espazio-lanetan ez haien elementu komunetan, aire zabaleko eremuetan izan ezik, horrelakorik badago.

12.4 Betebeharrak ez betetzea eta ondorioak

Betebeharrak ez betetzea eta horren ondorioz hitzarmena etetea Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren Ebazpenaren bitartez deklaratuko dira. Ebazpen horren aurretik, KBi DIGITALEko Kudeaketa Batzordeak gaiari buruzko txostena egingo du.

Lagapen-hartzaileek ordainketa-betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena etentzat deklaratzeko nahikoa izango da, dagokion kuota epe barruan ordaindu gabe lehen aldiz utzi duenean, lagapen-hartzaileari hori jakinarazi izana.

13. Programaren iraunaldia eta garapena

Programa honen oinarriak onartzen direnetik, 2014. urtean zehar aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaizkie. Epe hori luzatu egin daiteke, Administrazio Kontseiluaren akordio bidez; akordio horretan zehaztuko da, era berean, luzatutako epeari kontsignatutako aurrekontua.

Dena den, oinarri hauen indarraldia amaitzen denean ere erabili ahal izango dira oinarriok, harik eta hurrengo ekitaldirako oinarriak onartzeko geratzen diren bitartean, eta Bilbao Ekintzak hemen araututako zerbitzuen prestazioa etetea erabakitzen ez bada.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo programa funtsean aldatzen ez duen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Kontseiluak eskumena ematen dio Bilbao Ekintza, EPELeko Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Kontseiluari aldaketen berri.

14. Datu pertsonalen babesa

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, Bilbao Ekintzak adierazten du oinarri hauen izapidetzeak eragingo duen dokumentazioan azalduko diren datu pertsonalak K/ Nafarroa 5, 48001 Bilbo helbidea duen Bilbao Ekintza EPELen datu-fitxategian jasoko direla, Erakunde horrek eskaintzen dituen zerbitzu orokorren kudeaketa errazteko helburuarekin. Kontzeptu horretan sartzen dira hark antolatutako jardueren buruzko informazioa igortzea eta Erakunde honek egin ditzakeen memoria, direktorio, txosten edo dibulgazio izaerako beste argitalpen batzuetan identifikazio-datuak sartzea.

Bilbao Ekintzaren datu-fitxategiak Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinarazi zaizkio, eta haien segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak dituzte.

Nolanahi ere, interesdunak horren berri izan du, eta ados dago bai bere datuak aipaturako helbururako erabiltzearekin bai aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza-erakundeei lagatzearekin, enplegu politika aktiboak, lan-merkatuko bitartekotza eta lan-merkatuaren azterketak eta analisiak kudeatzeko. Halaber, interesdunak baimena eman du bere datuak Bilbao Ekintzarekin proiektu honetan lan egiten duten erakundeei (adibidez, Beaz, Spri, Gaia edo etorkizunean proiektuarekin bat egin dezakeen beste edozein) lagatzeko.

15. Lekapena

Xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintzak jakinarazi du Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak, KBi DIGITAL sehaskako Kudeaketa Batzordeak proposatuta eta dauden zirkunstantziak oro har kontuan hartuta, eta txosten teknikoaren ondoren, oinarri hauetan ezarritako gutxieneko betekizun eta baldintzetako baten bat edo batzuk lekatu ahalko dituela arrazoi bidez.

Lekapen horiek orekatu beharko dira, beste faktore orekatzaile batzuk (adibidez, zerbitzu osagarrien eskaintza) ezartzea eta gehitu daitezkeen instalazioen, zerbitzuen eta hobekuntzen baterako balorazioa kontuan hartuta.

Lekapen-eskaerarekin batera, eskatutako lekapena justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

16. KBi DIGITALAREN logotipoaren publizitatea

KBi DIGITALen logotipoa, baita adieraziko diren gainerakoak ere, onuradunek sortutako material inprimatuetan agerraraziko dituzte (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezko baliabideetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan.

Halaber, zuzenean diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitate elementu gisa prestatzen diren kartel, testu eta dokumentuetan bi hizkuntza ofizialak, hau da, euskara eta gaztelania, erabili beharko dira. Horrez gain, diru-laguntzaren xede den jarduerari lotutako sustapen hitzaldi publikoak eta, hala denean, megafoniaren bidez jakinarazten diren mezuak elebidunak izango dira, hasieran euskara eta gero gaztelania erabilita.

17. Aplikatu beharreko araudia

Eskaerak ebazteko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen araudian araututakoari lotuko zaio. Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak diru-laguntzen arloan xedatutakoa eta gainerako arau osagarriak aplikatuko dira.

I. Eranskina: Lagapen-hartzaileek ordaindu beharreko kuotak

2014an honako hauek izango dira hilero ordaindu beharreko kuotak (BEZ gabe):

Espazio mota	Prezioa lanpostuko	Azken prezioa
Lanpostua	85,00 €	85,00 €

II. Eranskina: Profesionalen profilak

KBi DIGITALen koka litezkeen garatzaileen profila

Frontend garatzailea

Haren eginkizun nagusia interfazea garatzea da; horren bidez, erabiltzaileak webguneko edozein aplikazioaren gaitasunak aprobeztatu eta erabili ahalko ditu edozein gailutatik (ordenagailu pertsonala, sakelako telefonoa, tableta), eguneratuta dagoen edozein nabigatzailearen bidez.

Zuzenean diseinatzaileekin kolaboratu beharko du, garatzen dituzten prototipoen (bisualak eta elkarrekintzakoak) gaitasunak aztertuz. Ondoren, prototipo horiek errealitate bihurtu beharko ditu horretarako beharrezko kodea ezarriz.

Front end arloko espezialista batek nabigatzaileen gaitasun berriak ezagutu beharko ditu, erabiltzaile interfaze berritzaileak sortu eta aprobeztatu ahal izateko.

Baloratuko den ezagutza

- Javascript eta framework ezagutza aurreratua, adibidez, angularJS, Closure, knockout, ember, nodejs, backbone, handlebars eta require.
- HTML5 estandarraren eta lehenagokoen ezagutza aurreratua
- CSS3, tresnak (adibidez, LESS) eta prototipatze-framework arloetako ezagutza aurreratua, adibidez, twitter bootstrap .
- Ezagutza services REST kontsumitzaileen garapenean

Backend garatzailea

Haren ardurak honako arlo hauei lotuta daude:

- Datuen ereduaren diseinua.
- Datuen eredu datu-baseen teknologia egokian (SQL edo NoSQL) inplementatzea
- Zerbitzariaren aldean dauden eta negozio-logika inplementatzeko eta datu-sarbidea optimizatzeko beharrezkoak diren osagaien arkitekturaren definizioa.
- APIak definitzea, front end garatzaileek kontroletan inplementatutako kontrolen sarbidea errazteko.
- Hirugarrenen zerbitzuekin gehitzea.
- Esperientzia git-ekin.

Back enden gauzak ezartzeaz arduratzen dira, esaterako [MySQL](#), Postgres, SQL Server edo [MongoDB](#). Ondoren, [PHP](#) edo JSP bezalako lengoia bat edo RoR, [Django](#),[Node.JS](#) edo .NET frameworkak datu-basera konektatzen dira.

Lengoia eta framework horien bitartez jaso, prozesatu eta informazioa bidaltzen zaio erabiltzailearen nabigatzaileari. HTML kodean (frontend sortzen duena) edo datu puruak XML, [RSS](#) edo [JSON](#) moduan bidaliz, Javascriptek prozesatzeko.

Baloratuko den ezagutza

- Eskalagarritasun altuko sistema banatuetan diseinu eta ezarpenetan esperientzia.
- Esperientzia zabala sistemen integrazioan.
- Esperientzia Restfull arkitekturak garatzean
- Esperientzia zerbitzari lengoaietan, adibidez, java, PHP, Ruby On Rails, python, go, nodejs eta abar.
- Esperientzia datu-base erlazioanetan, adibidez, MySQL, PostGreSQL, Oracle eta abar.
- Esperientzia datu-base ez erlazioanetan, adibidez, MongoDB, Cassandra, DynamoDB, REDIS eta abar.
- Mezularitza-sistemak, adibidez, RabbitMQ, AmazonSQL, Beanstalkd eta abar.
- Web zerbitzariak, adibidez, apache, nginx, tornado eta abar.

- Aplikazio-zerbitzaria, adibidez, tomcat, jetty eta abar.
- Esperientzia caché sistemen aplikazioan, adibidez, Memcache.
- Esperientzia git-ekin.

iOS garatzailea

Profil hori duen pertsona iOS sistema (Apple) duten gailuetarako sakelako jatorrizko aplikazioak garatzeaz arduratzen da.

Baloratuko den ezagutza:

- Esperientzia Core Text-ekin.
- Esperientzia Instruments-ekin.
- Esperientzia iOS kontzeptuei buruzko kontu berri guztietan eta APIrako deien erabileran.
- Esperientzia urruneko zerbitzuen kontsumoan (APIak XML, JSON), ingurune mugikorren barnean.
- Esperientzia javascript, HTML 5, CSS 3n.
- Esperientzia multithread soluzioen inplementazioan.
- Esperientzia git-ekin.

Android garatzailea

Profil hori duen pertsona Android sistema duten gailuetarako sakelako jatorrizko aplikazioak garatzeaz arduratzen da.

Baloratuko den ezagutza:

- JAVA programazio-lengoiaren ezagutza maila altua.
- Esperientzia SQL datu-baseekin, adibidez, sqlite.
- Esperientzia androiderako jatorrizko aplikazioak javaren sdkn garatzeko lanean.
- Esperientzia urruneko zerbitzuen kontsumoan (APIak XML, JSON), ingurune mugikorren barnean.

- Esperientzia javascript, HTML 5, CSS 3n eta framework-etan, adibidez, phonegap.
- Esperientzia GIT-ekin.

UX diseinatzailea/espezialista

Web aplikazio, webgune eta app mugikor ororen erabiltzaileak esperimentatzeko erabiltzen duen atal bisualaren arduraduna da.

Baloratuko den ezagutza

- Erabiltzaile-interfazeen diseinua web ingurune eta ingurune mugikorretarako.
- Agertokien diseinua, erabiltzaileen rolen edo profilen arabera.
- Prototipo interaktiboak (wireframe) HTML/CSSn edo prototipatze-tresnen bidez (adibidez, Axure, Pencil eta abar) diseinatzea.
- Esperientzia zabala web diseinuan, nabigagarritasun, edukien egituratze, informazioaren arkitektura arloan zuzenak ezarriz.

Oinarri hauetan definitutako eduki digitalen sektoreari lotutako zerbitzu aurreratuak eskaintzen dituzten bestelako profesionalak

Oinarri hauetan definitutako sektoreen balio-kateari lotutako zerbitzu aurreratuaren barneko jardura duten profesionalak, adibidez: ilustrazio digitala eta diseinu grafikoa, gidoilariak eta sortzaile artistikoak zinema, literatura, komiki munduan, infografia eta infoarkitektura, biosentsoreak, elektronika eta errobotika eta, KBI Digitaleko Kudeaketa Batzordearen irizpen teknikoaren arabera zentroan kokatutako proiektuei balio erantsi handia eman diezaieketen bestelako zerbitzuak.